

EUDELEk aholkuak eman dizkie Euskadiko udalei genero-indarkeria kasuetan datuak babestu eta kudeatzeari buruz

- **EUDELEk lan-saio bat antolatu du gaur, Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea (Berdinsarea) osatzen duten udalekin.**
- **Emakumeak artatzeaz arduratzen diren eragileen artean informazioa partekatzeari buruzko orientabideak eman ditu erakundeak, esku-hartzeen eraginkortasuna eta segurtasuna hobetze aldera.**

Bilbon, 2012ko otsailaren 29an. Gaur goizean, EUDELEk lan-saio bat antolatu du, Berdinsareko udalei genero-indarkeria kasuetan datuak babestu eta kudeatzeari buruzko aholkuak emateko. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa arduratu da aholkularitzaz. Genero-indarkeria kasuetarako prebentzio- eta arreta-protokoloetan Euskadiko udalei laguntzeko EUDELEk garatutako programaren barruan kokatzen da ekimen hori.

Berdinsarea, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea, 2005ean sortu zen. EUDELEk koordinatzen du, Emakunderen eta Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren laguntzarekin. Gaur egun, 52 udalek osatzen dute sarea; alegia, EAEko biztanleen %75 biltzen ditu.

Genero-indarkeria kasuak artatzeko protokoloetan EUDELEk **Berdinsareko udalei laguntzeko hartutako konpromisoaren barruan** kokatzen da gaurko lan-saioa. Besteak beste, EUDELEk honako zerbitzuak eskaintzen dizkie udalerri horiei: biktimentzako akonpainamendua, adituen aholkularitza, gidaliburuak eta materialak, gainerako erakundeekiko harremanak.

Indarkeria-kasuetan datuak babestu eta kudeatzea

Lan-saioan udalen zalantzak argitu dira, eta **Datuak Babesteko Euskal Legeak** ematen dituen aukerak azaldu dira, arreta-ibilbidean zehar indarkeriaren biktimak artatzen dituzten eragileek informazioa partekatzeari dagokionez. Azken helburua hauxe da: arreta-ibilbidean zehar, emakumeek behin eta berriz informazio bera errepikatu behar ez izatea tartean dauden erakunde edo eragileei.

Historietako datuak hobeto kudeatu eta babestuz gero, esku-hartzeak bizkortu egin daitezke eta zerbitzuaren eraginkortasuna nahiz segurtasuna handitu daiteke.

Emakumeentzako arretan esku hartzen duten zerbitzuak, normalean, honako hauek izaten dira: udaletako Berdintasun Sailak eta Gizarte Zerbitzuak, polizia-kidegoak (Udaltzaingoa, Ertzaintza, etab.), Osakidetza edo sistema judiziala. Horiek guztiek helburu berbera lortzeko dihardute lanean: genero-indarkeria jasan duten edo jasaten ari diren emakumei aholkuak, informazioa, babesak, akonpainamendua eta baliabideak ematea.

Beraz, ezinbestekoa da zerbitzu horien artean zer-nolako informazio-trukea egin daitekeen zehaztea. Eta ahal den neurrian, artatu duen zerbitzu bakoitzeko emakumeak baimen bat sinatu behar izatea saihestu behar da. Izan ere, **egoera horrek biktimizazioa eragiten du**, eta kasuen koordinazioa nahiz jarraipena oztopatzen ditu.

Jorratutako gaien laburpena

- Esku-hartzeak koordinatzeaz eta kasu bakoitzeko datuak eta historia kudeatzeaz arduratzen diren sailak.
- Zer datu eman behar diren eta nori eman behar zaizkion zehaztea.
- Komunikazio-bideak eta erregistro-eredua.
- Espediente nahiz historien segurtasun- eta babes-neurriak.
- Indarkeria jasan duen emakumearen baimena, komunikazio-tresna gisa.

- Izapideak erraztea: baimen bakarra, emakumearen “biktimizazioa” saihesteko.

BerdinSarea

Berdinsarea 2005. urtean sortu zen, EUDELe eta Emakundek sinatutako hitzarmen baten ondorioz. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokan Euskadiko udalen erantzuna indartzea du xede.

Berdinsarea tokian tokiko ekimenen erreferentea da, eta oinarrizko irizpideak proposatzen ditu tokiko gobernuek berdintasun-politiken inguruan ikuspegi berbera izan dezaten eta politika horietarako dauzkaten baliabideak optimiza ditzaten. Sarearen eginkizun nagusiak hauek dira: erakundeen arteko akordioak bultzatzea, udalek egiten dituzten ekintzak dinamizatu eta koordinatzea, eta laguntza teknikoa eskaintzea gaiarekin loturiko egitura edo baliabiderik ez duten udalei.